



OIARTZUNGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiairengatik, udalerri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Oiartzungo Hiri Antolaketa Arauak Aldatzea, 59. alorra (Asiloa) handitzea** (Diputatu Kontseiluak 2006ko irailaren 26an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko azaroaren 6an argitaratua).
- **Oiartzungo Arragua Auzoko 12, 34 eta 68. Areei dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa** (Diputatu Kontseiluak 2006ko abuztuaren 2an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko urriaren 3an argitaratua).



Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Hacienda

Udal zergen Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Gestión de Tributos Locales

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.

2.- 101 eta 411 zona katastralen mugapena aldatzen da.

I. ERANSKINA:

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.

II. ERANSKINA:

Zona katastralen plano.